

/2016 FORU AGINDUA,       aren (e)koa, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak emana, Ekonomia, Ogasun, Industria era Enpleguako kontseilariaren 105/2013 Foru Agindua aldatzen duena. Foru agindu horren bidez "Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga: zenbait loteria eta apusturen sarien gaineko karga bereziaren atxikipenak eta konturako sarrerak; sozietateen gaineko zerga: zenbait loteria eta apusturen sarien gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Autolikidazioa" izeneko 230 eredua eta "Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko Zerga. Zenbait loteria eta apusturen sarien gaineko karga berezia. Autolikidazioa" izeneko 136 eredua onetsi ziren.

Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Testu Bateginaren hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako zozketetan lortzen diren sariak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari lotuta egonen dira karga berezi baten bidez, horiek Estatuko Loteria eta Apustuen Estatu Sozietateak eta Foru Komunitateko edo autonomia erkidegoetako organo edo erakundeek antolatutako loteria eta apustueta lortzen direnean, baita Espainiako Gurutze Gorriak antolatutako zozketetan eta Organización Nacional de Ciegos Españoles erakundeak baimenduta dituen joko modalitateetan lortzen direnean.

Orobat, karga berezi horren menpe daude gizarte jarduerak edo laguntzakoak irabazi asmorik gabe egiten dituzten entitateek edo erakunde publikoek antolatutako loteria, apustu eta zozketetako sariak, erakunde horiek Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu batean finkatuta izanik, lehen adierazitako Espainiako erakunde edo entitateen helburu berberak dituztela.

Saria ordaindu edo ematen den unean sorraraziko da karga berezia, eta %20ko atxikipena edo konturako sarrera egin beharko da.

Xedapen honetan aurreikusitako sariak lortzen dituzten subjektu pasiboak behartuta egonen dira karga berezi horren autolikidazioa aurkeztera, dagokion zerga zorraren zenbatekoa zehaztuta, eta zenbateko horren diru-sarrera egitera. Halere, ez da aipatu autolikidazioa aurkeztu beharrik izanen, lortutako saria salbuetsitako

zenbatekoa baino txikiagoa denean edo atxikipena edo konturako sarrera egina denean.

Era berean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 88.5 f) artikulua ezartzen du atxikipena edo konturako diru-sarrera egin beharko dutela beren zenbatekoa dela-eta Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen loteria eta apustu batzuen karga bereziaren menpe eta salbuetsi gabe dauden loteria eta apustuen sariak, eta atxikipena eginen dela kargaren menpe eta salbuetsi gabe dagoen sariaren zenbatekoaren gainean. Testu bategin hori ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuak onetsi zuen.

Martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko legearen testu bateginak, bosgarren xedapen gehigarrian ezartzen du zerga horri lotuta daudela, karga berezi baten bidez, azaroaren 28ko 35/2006 Legearen hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriaren 1 a) atalean sartutako sariak, establezimendu iraunkorrik gabeko zergadun ez-egoiliarrek eskuratutakoak, eta berariaz adierazten du ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren esparruan sari horiei karga berezi hori baizik ezin izanen zaiela ezarri.

Aipatu bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitako sariak atxikipenaren edo konturako sarreraren menpe daude aipatu Testu Bateginaren 31. artikuluan aurreikusitako moduan; gainera, atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra dago saria salbuetsita dagoenean hitzarmen batean xedatutakoaren ondorioz, zergapetze bikoitzik izan ez dadin. Atxikipenaren edo konturako sarreraren portzentajea ere %20koa da, eta karga bereziaren zerga-oinarriaren araberakoa izanen da atxikipenaren oinarria edo konturako sarrera.

Xedapen gehigarri horretan aurreikusitako sariak lortzen dituzten establezimendu iraunkorrik gabeko zergadun ez-egoiliarrek behartuta egonen dira karga berezi horren autolikidazioa aurkeztera, dagokion zerga zorraren zenbatekoa zehaztuta, eta zenbateko horren diru-sarrera egitera. Ez da aipatu aitorpena aurkeztu beharrik izanen, lortutako saria salbuetsitako zenbatekoa baino txikiagoa denean edo aurreikusitako atxikipena edo konturako sarrera egina denean.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eremuko zenbait loteria eta apusturen sarien gaineko karga berezitik bereizten duen espezialitate gisa, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eremuan, karga berezi honengatik, Nafarroako Foru Komunitateko organo edo entitateek antolatutako loteria eta apustuen sariei buruz, Nafarroako Foru Ogasunean diru kopuruak sartu edo konturako atxikipenak egin direnean, eta horien zenbatekoa zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen baten aplikaziotik ateratzen dena baina handiagoa denean, aplikazio hori eskatzen ahalko da, eta dagokion itzulketa; horretarako, ekainaren 18ko 231/2013 Foru Aginduak onetsitako 210 eredua erabiliko da.

Ekonomia, Ogasun, Industria era Enpleguako kontseilariaren martxoaren 25eko 105/2013 Foru Aginduaren bidez onetsi zen 136. eredua, sari hauen aitorpena egiteko; bertan ezartzen den aurkezpen modu bakarra inprimatutako papera erabiliz egindakoa da, Nafarroako Zerga Ogasunak horretarako garatutako inprimakiak sortzeko zerbitzuaren bidez, Interneteko helbide honetan:<http://www.hacienda.navarra.es>.

Zergadunari aurreko lehenagoko aitorpenak aurkezten laguntzeko, eta kontuan harturik zergadunek gero eta eskurago dituztela teknologia berriak, komeni da eredu honetan ere inprimaki bidezko aurkezpen telematikoa baliagarri jartzea.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarriaren 7. atalak baimena ematen dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariari karga horren aitorpena zein toki, modu eta epetan aurkeztu behar den erabakitzeko.

Horrenbestez, abenduaren 14ko Tributuei buruzko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 6. artikulua eta Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41.1.g) artikulua emandako eskudantzia erabiliz,

AGINDU DUT:

Artikulu bakarra. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariaren 105/2013 Foru Agindua aldatzea. Foru agindu horren bidez "Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga: zenbait loteria

eta apusturen sarien gaineko karga bereziaren atxikipenak eta konturako sarrerak; sozietateen gaineko zerga: zenbait loteria eta apusturen sarien gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Autolikidazioa" izeneko 230 eredua eta "Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko Zerga. Zenbait loteria eta apusturen sarien gaineko karga berezia. Autolikidazioa" izeneko 136. eredua onetsi ziren.

Ondoren azaltzen diren 105/2013 Foru Aginduaren manu hauek ondoko testu hau izanen dute:

Bat. 5. artikulua.

"5. artikulua. 136 eredua onestea.

1. 136 eredua, "Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga. Zenbait loteria eta apusturen sarien gaineko karga berezia. Autolikidazioa" izenekoa, eta 790 ordain gutuna onesten dira. II. eranskinean dago eredua.

2. 8. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, 136 eredua aurkezten ahalko da bai inprimatutako papera erabiliz, II. eranskinean ezarritako ereduaren arabera, bai bide telematikoa erabiliz Internet bidez, 9. eta 10. artikuluetan jasotako baldintza orokorrekin eta prozedurarekin bat."

Bi. 7. artikulua.

"7. artikulua. 136 eredua aurkezteko eta diru-sarrera egiteko epea.

1. 136 ereduaren aurkezpena eta ondoriozko kuotaren diru-sarrera hiru hilean behin egingen dira, urteko hiruhileko natural bakoitza amaitu eta hurrengo hileko hogeiei egun naturalean, Nafarroako Zerga Ogasunaren bulegoetan, aitzin-aitzineko hiruhileko naturalean kobratutako sariei dagokienez, salbu eta bigarren eta laugarren hiruhilekoei dagozkien aitorpenetan, horiek aurkeztu eta diru-sarrera egiteko epeak abuztuaren 5ean eta hurrengo urteko urtarrilaren 31n amaituko baitira, hurrenez hurren.

2. Nafarroako Zerga Ogasunaren edozein erakunde laguntzailetan egingen da diru-sarrera, 790 ereduko ordainketa-gutunaren bidez, edo, bestela, ordaintzeko onartuta dagoen beste bide bat erabiliz".

Hiru. 8. artikulua.

"8. artikulua. 136 eredua aurkezteko modua.

136 ereduaren autolikidazioak modu hauetako batean aurkeztuko dira:

1. Paper inprimatuan, II. eranskinean ezarritako ereduari jarraituz; bi ale ditu, bata Administrazioarentzat eta bestea interesdunarentzat, eta 790 ereduko ordainketa gutuna. Inprimaki hori Nafarroako Zerga Ogasunak inprimakiak sortzeko duen zerbitzuan lortuko da, beste inon ez, eta Interneteko <http://www.hacienda.navarra.es> helbidean eskuratzen ahal da.

2. Inprimaki bidez, bide telematikoan Internet erabiliz, 9. eta 10. artikuluetan ezarritako baldintza orokorrei eta prozedurari jarraikiz."

Lau. Bi artikulua berri gehitzen dira, honako edukiarekin:

"9. artikulua. 136 ereduaren aurkezpen telematikorako baldintza orokorrak.

1. 136 ereduko aitortzen aurkezpen telematikoa baldintza hauei jarraikiz egingen da:

a) Aitortzaileak identifikazio fiskaleko zenbakia eduki beharko du (IFZ).

b) Aitortzaileak ziurtagiri elektronikoa eduki beharko du, Nafarroako Zerga Ogasunak onartua, Nafarroako Zerga Ogasunaren esparruan baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoen (EIT) erabilera arautzen duen uztailaren 17ko 50/2006 Foru Dekretuan ezarrita dagoenari jarraikiz.

Ziurtapen zerbitzuen emaileak eta baimenduta dauden ziurtagiri elektronikoak dagokien atalean aipatzen dira; Interneteko <http://www.hacienda.navarra.es> helbidetik abiatuta iristen ahal da atal horretara.

c) Aitorpenak, komunikazioak eta zerga arloko beste agiri batzuk hirugarren pertsonen izenean telematika bidez aurkezteko eta tributu zorren ordainketa telematika bidez tramitzeko kanpo-lankidetzarako akordioa onesten duen ekainaren 29ko 130/2009 Foru Aginduan xedatutakoarekin bat, aitorpenak hirugarrenen izenean egiteko baimenduta dagoen pertsona edo entitate bat baldin bada aurkezlea, Nafarroako Zerga Ogasunak aurreko b) letran adierazitakoaren arabera onartutako ziurtagiri elektronikoa eduki beharko du.

d) Aitortzaileak edo, kasua bada, aurkezle baimenduak Nafarroako Zerga Ogasunaren web orrian aurkezpen telematikorako dagoen inprimakia erabili beharko du.

e) Aitortzaileek aurkezpen telematiko hori egiteko eskatzen diren arau teknikoak bete beharko dituzte. Arau horiek Nafarroako Zerga Ogasunaren web orrialdean daude ikusgai, Interneteko helbide honetan <http://www.hacienda.navarra.es>.

2. Bide telematika erabiliz igortzen diren aitorpenetan akats formalen bat atzematen denean, sistemak berak emanen dio horren berri aitortzaileari errore-mezuen bitartez, behar diren zuzenketak egin ditzan."

"10. artikulua. 136 ereduko aitorpenen aurkezpen telematika, Internet bidez, egiteko prozedura.

Aitorpenen aurkezpen telematika Internet bidez egiteko, prozedura hau erabiliko da:

a) Nafarroako Ataritik, Ogasunarekin egiten diren izapideen atalean sartu.

b) Egin nahi den aitorpenaren eredua hautatu, eta aitorpena aurkeztu ahal izateko datu guztiak bete.

c) Aitorpena bete ondoren, igortzeko aukera erabili. Aitorpena zuzen egin bada, sistemak balidatuko du. Akatsik atzemanetz gero, datu-orriaren bidez emanen da horren berri, eta haiek zuzendu arte ezin izanen da aitorpena aurkeztu. Aitorpena zuzen bete ondoren, sistemak jakinaraziko du zer zenbaki esleitu zaion aurkeztutako aitorpenari eta, orobat, inprimatzeko aukera eskainiko du, frogagiri gisa erabiltzeko."

Bost. 136 ereduko jarraibideen aldaketa

Martxoaren 25eko 105/2013 Foru Aginduaren II. eranskinean jasotako jarraibideak aldatu, eta aurrerantzean Nafarroako Zerga Ogasunaren web orrian, Interneteko helbide honetan, unean-unean argitaratzen direnak erabili beharko dira: <http://www.hacienda.navarra.es>

Xedapen gehigarri bakarra. Bankuan helbideratuz

136 eredua sartzen da Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren apirilaren 23ko 80/2008 Foru Aginduaren eranskinean agertzen den zerrendan (helbideratu daitezkeen ereduen zerrenda, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariaren ekainaren 25eko 187/2015 Foru Aginduan agertzen den testuaren arabera). Foru agindu horren bidez, hein batean garatu zen Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamendua, zergen aitorpen-likidazio edo autolikidazio batzuei dagozkien ordainketak bankuan helbideratzeari dagokionez.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, (e)ko aren (e)an

OGASUNEKO

ETA FINANTZA POLITIKAKO KONTSEILARIA,

Mikel Aranburu Urtasun.

